6.- Martxoaren 8koa den Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2/2005 Zerga Foru Arau Orokorraren 65.b) artikulua dio Administrazioak berak likidatutako eta autolikidatutako zerga zorren ordainketa exijitzeko duen eskubideak lau urteren buruan preskribituko du.

6.- *El artículo 65 b) de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa dispone que prescribe a los cuatro años el derecho de la Administración para exigir el pago de las deudas tributarias liquidadas y autoliquidadas.*

7.- Martxoaren 8koa den Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2/2005 Zerga Foru Arau Orokorraren 68. artikulua dio preskripzioa ofizioz aplikatuko dela.

7.- *El artículo 68 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa dispone que la prescripción se aplicará de oficio.*

KONTUAN IZANIK DIRUBILKETAK AZALDUKO DEN ZORRA EXEKUZIO EDO BETEARAZPEN ALDIAN KOBRAZTEKO KUDEAKETA EGIN ETA KOBRAZTERIK IZAN EZ BADU ERE EZ ZUELA BERE MOMENTUAN ZORDUNAK HUTS EGINDAKO ZORDUNTZAT JOTZEKO PROPOSAMENA AURKEZTU

RESULTANDO QUE LA DEUDA DE LA RELACIÓN QUE SE DETALLA HA SIDO OBJETO DE GESTIÓN DE COBRO EN PERIODO EJECUTIVO CON RESULTADO NEGATIVO Y QUE NO SE PRESENTÓ UNA PROPUESTA DE INSOLVENCIA EN SU DEBIDO MOMENTO

2022/12/23 Diruzainak egindako txostena.

El informe del/de La tesorera de fecha 23/12/2022.

Arestian adierazitakoa kontuan izanik, idatziarekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta horrekin bat egonik, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuta, ondorengo

A la vista de lo que antecede, examinada la documentación que la acompaña y de conformidad con la misma en uso de las atribuciones que me están legalmente conferidas en virtud del artículo 21.1 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, por medio de la presente

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

TENGO A BIEN :

GUZTIRA 15.811'97€ko ZORRARI BAJA EMATEA PROPOSATZEN DUT PRESKIPZIOA IZANIK BAJA ARRAZOA; PRESKIPZIOA HARTZEAK BERAREKIN EKARRIKO DUELARIK KREDITUARI KONTUETAN BAJA EMATEA ADIERAZPEN HORREK AIPATUTAKO NEURRIAN.

QUE LA DEUDA PENDIENTE DE PAGO POR IMPORTE TOTAL DE 15.811'97 € SEA DADA DE BAJA POR PRESCRIPCIÓN, LO QUE MOTIVARÁ LA BAJA EN CUENTAS DEL CRÉDITO EN LA CUANTÍA A QUE SE REFIERE DICHA DECLARACIÓN.



.....

DIRUZAINAREN TXOSTENA 66

INFORME DE LA TESORERA

Ejekutiba: espedienteak / Ejecutiva: expedientes

Gaia: PRESKRIPZIO espedientea (isunak hildakoen izenean)

Asunto: Expediente de PRESCRIPCION (multas a nombre de fallecidos)

Txosten honek oinarri hauek ditu:

El presente informe se basa en los siguientes,

IZATEZKO OINARRIAK:

FUNDAMENTOS DE HECHO:

LEHENENGOA:

PRIMERO:

Gesmunpal SA-k, Ordiziako udalean aurkezten duen P-2022/003 txostena eta zerrenda: udalak, ofizioz, preskripzioa ebazteko (hildakoen izenan dauden trafiko isunak).

Informe y relación P-2022/003 que Gesmunpal SA presenta en el Ayuntamiento de Ordizia a efectos de declarar, de oficio, la prescripción (multas de tráfico que se tramitan en nombre de fallecidos).

Horiek horrela, honako hauek aplikatuko dira:

Atendiendo a lo anterior, son de aplicación los siguientes,

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK:

FUNDAMENTOS DE DERECHO

2/2005 Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 39. Artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Araudiaren 133. Artikuluan xedatutakoaren arabera zergapeko bat hiltzen denean, bete gabe gelditzen diren zerga betebeharrak oinordekoei eskualdatuko zaizkie. Era berean, 39.1 artikulua dio, zehapenak ez direla inoiz eskualdatuko.

En base a lo dispuesto en el art. 39 de la Norma Foral General Tributaria de Gipuzkoa y el artículo 133 del Reglamento de Recaudación a la muerte de los obligados tributarios, las obligaciones tributarias pendientes se transmitirán a las herederas y los herederos. A su vez, en el citado artículo 39.1 dispone que no se transmitirán las sanciones.

2/2005 Zergen Foru Arau Orokorreko 74. eta 177.2. artikulua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Araudiaren 61 eta 62 artikuluan xedatutakoa aintzat hartuz, zorrak kitatzeko prozedurak emaitzarik ematen ez badu, eta bahitu edo gauzatu daitekeen ondasun edo eskubide nahikorik

En aplicación del art. 74 y 177.2 de la NF 2/2005 General Tributaria y 61-62 del Reglamento de Recaudación toda vez que las actuaciones de recaudación para el cobro de las deudas han dado resultado negativo, y se ignora la existencia de bienes o derechos embargables o realizables, dichos créditos se declaran incobrables. Si antes del periodo de prescripción se tiene



Ordiziako Udala

2023IOSB0001

ezagutzen ez bada, aipaturiko zorrak kobraezintzat jotzen dira. Preskripzio epea amaitu aurretik, ordaintzera behartutakoak kaudimena berreskuratu duela jakiten bada, kreditua birgaitu egingo da eta zerga-bilketa prozedurari ekingo zaio berriro.

2/2005 Foru Arau Orokorreko 65.etik 69.erako artikuluetan xedatzen denaren arabera, zerga zorrak preskribitutzat joko dira kobratzeko gestioak egin ondoren zorra kitatzeko moduko ondasun edo eskubiderik ez izanik preskripzio epea jada amaitua dutenak (4 urte).

339/1990 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 2koa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatua onartzeko denaren 81.3. artikulua arabera (2010eko maiatzaren 24 arte indarrean egon zenaren arabera) zehapenek urtebetean preskribatuko dute, dena delako zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Azaroaren 23koa den Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko 18/2009 Legearen 92.4 artikulua arabera diruzko isuna dakarten zehapenen preskripzio-epea lau urtekoa izango da, eta gainerako zehapenen preskripzio-epea urtebetekoa, zehapena administrazio-bidean irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Gesmunpal, SAK aurkeztutako P-2022/003 preskripzio-txostena ikusita, eta espedienteetan egindako jarduketei buruz xedatutakoa eta ebazpen-proposamena ikusita.

Horrenbestez,

ERABAKI PROPOSAMENA:

conocimiento de la solvencia de algún obligado tributario, el crédito se rehabilita y continua el procedimiento recaudatorio.

Según se establece en los art. 65 a 69 de la NF 2/2005 General Tributaria, las deudas se considerarán prescritas, una vez agotadas las gestiones para el cobro sin resultado alguno y transcurrido el periodo de prescripción (4 años)..

El artº 81.3 del real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprobó el Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial (redacción vigente hasta el día 24 de mayo del 2010, incluido) decía que el plazo de prescripción de las sanciones era de un año computado desde el día siguiente a aquel en que adquirió firmeza la resolución por la que se impuso la correspondiente sanción.

El artículo 92.4 del Ley 18/2009, de 23 de noviembre, Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial decía que el plazo de prescripción de las sanciones consistentes en multa pecuniaria será de cuatro años y, el de las demás sanciones, será de un año, computados desde el día siguiente a aquél en que adquiriera firmeza en vía administrativa la sanción.

En vista del informe de prescripción P-2022/003 presentados por Gesmunpal, SA y lo dispuesto respecto de las diferentes actuaciones realizadas en los respectivos expedientes y su propuesta de resolución

Por todo lo anterior se alcanza la siguiente,

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN



Ordiziako Udala

2023IOSB0001

LAUGARRENA: P-2022/003 erlazioko Isunak (hildakoen izenean).

CUARTO: multas a nombre de fallecidos integradas en la relación P-2022/003.

Kontuan izanik dirubilketak azalduko den zorra exekuzio edo betearazpen aldiaren kobrazteko kudeaketa egin eta kobratzerik izan ez badu ere ez zuela bere momentuan zordunak huts egindako zorduntzat jotzeko proposamena aurkeztu, guztira 1.604'73€ko zorrari baja ematea proposatzen dut preskripzioa izanik baja arrazoia; preskripzioa hartzeak berarekin ekarriko duelarik kredituari kontuetan baja ematea adierazpen horrek aipatutako neurrian.

Resultando que la deuda de la relación que se detalla ha sido objeto de gestión de cobro en periodo ejecutivo con resultado negativo y que no se presentó una propuesta de insolvencia en su debido momento, se propone que la deuda pendiente de pago por importe total de 1.604'73 € sea dada de baja por prescripción, lo que motivará la baja en cuentas del crédito en la cuantía a que se refiere dicha declaración.

2022/1568. DEKRETUA

DECRETO Nº 2022/1568

HONAKO HAU IKUSITA:

A LA VISTA DE :

GESMUNPAL SA-k, A48913297, ORDIZIAKO UDALAN AURKEZTEN DUEN TXOSTENA UDALAK, OFIZIOZ, PRESKIPZIOA EBAZTEKO (HILDAKOEN IZENAN DAUDEN TRAFIKO ISUNAK).

INFORME QUE GESMUNPAL SA PRESENTA EN EL AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA A EFECTOS DE DECLARAR, DE OFICIO, LA PRESCRIPCIÓN (MULTAS DE TRAFICO QUE SE TRAMITAN EN NOMBRE DE FALLECIDOS).

Zerrendatuko diren premiamendu espedienteak izapidetzerakoan:

Habiendo comprobado, en la tramitación de los expedientes de apremio de la relación adjunta, que:

- Jakinarazpenak saiatu dira DGT-n ageri diren helbideetan, Udalen erroldan jasota dagoen helbideetan eta baita ere hainbat ikerketa egin ondoren lortu diren helbideetan ere, baina zergadunak helbide guztietan ezezagunak suertatu dira.
- Zergadunak hilda daudela egiaztatuta da.
- Kontuetan gordailatutako dirua embargatzea ezinezkoa gertatu da.

- *Se ha intentado la notificación en los domicilios que figuran en los archivos de la DGT, en el domicilio que figura en el padrón de habitantes, así como en el que se haya podido averiguar, con resultado, en todo ellos, de desconocido.*
- *Que los infractores han fallecido.*
- *Se ha intentado el embargo de dinero depositado en cuentas con resultado negativo.*



Ordiziako Udala

2023IOSB0001

- Arau-hausleen izenean ez dela zor berria sortu (kasu gehienetan).
- Azken lau urteetan ez dela ordainketarik lortu.
- *Que los infractores no generan más deuda (en la mayoría de los casos).*
- *Que en los últimos cuatro años no se ha obtenido ningún cobro.*

Azalduko diren **OINARRI JURIDIKOAK** diotena aplikagarria delarik:

*Siendo de aplicación los **FUNDAMENTOS DE DERECHO** que se detallan:*

1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duena abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 133.1. artikulua dio (Gipuzkoako Lurralde Historiko martxoaren 8koa den 2/2005 Zerga Foru Arau Orokorraren 39.1. artikuluari jarraikiz) zor bat ordaintzera behartutako edozein pertsona behin hil eta gero, zergabilketa prozedurak bere oinordekoekin eta, bidezkoa denean, legatadunekin jarraituko duela aurrera; beharkizun bakarrak izango direla bera hil izana egiaztatzea eta zorra ordaintzeko errekerimendua, kausatzaileak ordaindu gabe zituen kostuak barne, ondorengari jakinaraztea; ondorio horietarako, ondorengoa kausatzailea heriotzaren unean zegoen posizio berean subrogatuko dela.

1.- El artículo 133.1 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa (de acuerdo con lo previsto en el artículo 39.1 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, general tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa) dispone que fallecida cualquier persona obligada al pago de una deuda, la recaudación continuará con sus herederos y, en su caso, legatarios, sin más requisitos que la constancia del fallecimiento de aquella y la notificación al sucesor del requerimiento para el pago de la deuda incluidas las costas pendientes del causante, con subrogación, a estos efectos, en la misma posición en que se encontraba el causante en el momento del fallecimiento.

(Aipatu den 39.1. artikulua dio, baita ere, zehapenak ez direla inoiz eskualdatuko).

(El citado artículo 39.1 dispone, también, que no se transmitirán las sanciones).

2.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzeko den abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 62.1. artikulua dio kreditua kobrazintzat hartzeak berarekin ekarriko duela kontuetan kredituari baja ematea adierazpen horrek aipatutako neurrian.

2.- El artículo 62.1 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa dispone que la declaración de crédito incobrable motivará la baja en cuentas del crédito en la cuantía a que se refiere dicha declaración.

KONTUAN IZANIK DIRUBILKETAK AZALDUKO DEN ZORRA EXEKUZIO EDO BETEARAZPEN ALDIAN KOBRAZTEKO KUDEAKETA EGIN ETA KOBRAZTERIK IZAN EZ BADU ERE EZ ZUELA BERE MOMENTUAN

RESULTANDO QUE LA DEUDA DE LA RELACIÓN QUE SE DETALLA HA SIDO OBJETO DE GESTIÓN DE COBRO EN PERIODO EJECUTIVO CON RESULTADO NEGATIVO Y QUE NO SE PRESENTÓ UNA PROPUESTA DE INSOLVENCIA EN SU DEBIDO MOMENTO



Ordiziako Udala

2023IOSB0001

**ZORDUNAK HUTS EGINDAKO
ZORDUNTZAT JOTZEKO
PROPOSAMENA AURKEZTU**

2022/12/23 Diruzainak egindako txostena.

El informe del/de La tesorera de fecha 23/12/2022.

Arestian adierazitakoa kontuan izanik, idatziarekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta horrekin bat egonik, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuta, ondorengo

A la vista de lo que antecede, examinada la documentación que la acompaña y de conformidad con la misma en uso de las atribuciones que me están legalmente conferidas en virtud del artículo 21.1 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, por medio de la presente

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

TENGO A BIEN :

GUZTIRA 1.604'73€ko ZORRARI BAJA EMATEA PROPOSATZEN DUT PRESKRIPZIOA IZANIK BAJA ARRAZOIA; PRESKRIPZIOA HARTZEAK BERAREKIN EKARRIKO DUELARIK KREDITUARI KONTUETAN BAJA EMATEA ADIERAZPEN HORREK AIPATUTAKO NEURRIAN.

QUE LA DEUDA PENDIENTE DE PAGO POR IMPORTE TOTAL DE 1.604'73 € SEA DADA DE BAJA POR PRESCRIPCIÓN, LO QUE MOTIVARÁ LA BAJA EN CUENTAS DEL CRÉDITO EN LA CUANTÍA A QUE SE REFIERE DICHA DECLARACIÓN.

.....
DIRUZAINAREN TXOSTENA 67
INFORME DE LA TESORERA

Ejekutiba: expedienteak / Ejecutiva: expedientes

Gaia: PRESKRIPZIO expedientea, huts egindako proposamena ez aurkeztu izanagatik

Asunto: Expediente PRESCRIPCIÓN por no haber presentado la propuesta de deudores fallidos

Txosten honek oinarri hauek ditu:

El presente informe se basa en los siguientes,

IZATEZKO OINARRIAK:

FUNDAMENTOS DE HECHO:

LEHENENGOA:

PRIMERO:

Gesmunpal SA-k, Ordiziako udalean aurkeztu duen P-2022/004 txostena eta zerrenda: huts egindako zorduntzat jotzeko proposamena aurkeztu ez izanaren ondorioz zerga-zorra kobratzeko

Informe y relación P-2022/004 que Gesmunpal SA presenta en el Ayuntamiento de Ordizia: prescripción de derecho al cobro a consecuencia de no haber presentado en plazo la propuesta de deudores fallidos.



eskubidearen preskripzioa.

Horiek horrela, honako hauek aplikatuko dira:

Atendiendo a lo anterior, son de aplicación los siguientes,

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK:

FUNDAMENTOS DE DERECHO

2/2005 Zergen Foru Arau Orokorreko 74. eta 177.2. artikulua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Araudiaren 61 eta 62 artikuluan xedatutakoa aintzat hartuz, zorrak kitatzeko prozedurak emaitzarik ematen ez bada, eta bahitu edo gauzatu daitekeen ondasun edo eskubide nahikorik ezagutzen ez bada, aipaturiko zorrak kobraezintzat jotzen dira. Preskripzio epea amaitu aurretik, ordaintzera behartutakoak kaudimena berreskuratu duela jakiten bada, kreditua birgaitu egingo da eta zerga-bilketa prozedurari ekingo zaio berriro.

En aplicación del art. 74 y 177.2 de la NF 2/2005 General Tributaria y 61-62 del Reglamento de Recaudación toda vez que las actuaciones de recaudación para el cobro de las deudas han dado resultado negativo, y se ignora la existencia de bienes o derechos embargables o realizables, dichos créditos se declaran incobrables. Si antes del periodo de prescripción se tiene conocimiento de la solvencia de algún obligado tributario, el crédito se rehabilita y continua el procedimiento recaudatorio.

2/2005 Foru Arau Orokorreko 65.etik 69.erako artikuluetan xedatzen denaren arabera, zerga zorrak preskribituztat joko dira kobratzeko gestioak egin ondoren zorra kitatzeko moduko ondasun edo eskubiderik ez izanik preskripzio epea jada amaitua dutenak (4 urte).

Según se establece en los art. 65 a 69 de la NF 2/2005 General Tributaria, las deudas se considerarán prescritas, una vez agotadas las gestiones para el cobro sin resultado alguno y transcurrido el periodo de prescripción (4 años)..

Gesmupal, SAK aurkeztutako P-2022/004 preskripzio-txostena ikusita, eta espedienteetan egindako jarduketari buruz xedatutakoa eta ebazpen-proposamena ikusita.

En vista del informe de de prescripción P-2022/004 presentados por Gesmupal, SA y lo dispuesto respecto de las diferentes actuaciones realizadas en los respectivos expedientes y su propuesta de resolución

Horrenbestez,

Por todo lo anterior se alcanzan las siguiente,

ERABAKI PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

LEHENENGOA: P-2022/004 erlazioko zerga eta tasak (1991-2015).

PRIMERO: *impuestos y tasas (1991-2015) integradas en la relación P-2022/004*

Kontuan izanik dirubilketak azalduko den zorra exekuzio edo betearazpen aldiaren kobratzeko kudeaketa egin eta kobratzerik

Resultando que la deuda de la relación que se detalla ha sido objeto de gestión de cobro en periodo ejecutivo con resultado negativo y que no se presentó una



Ordiziako Udala

2023IOSB0001

izan ez badu ere ez zuela bere momentuan zordunak huts egindako zorduntzat jotzeko proposamena aurkeztu, guztira 28.107'76€ko zorrari baja ematea proposatzen dut preskripzioa izanik baja arrazoia; preskripzioa hartzeak berarekin ekarriko duelarik kredituari kontuetan baja ematea adierazpen horrek aipatutako neurrian.

propuesta de insolvencia en su debido momento, se propone que la deuda pendiente de pago por importe total de 28.107'76 € sea dada de baja por prescripción, lo que motivará la baja en cuentas del crédito en la cuantía a que se refiere dicha declaración.

2022/1569. DEKRETUA

DECRETO Nº 2022/1569

HONAKO HAU IKUSITA:

A LA VISTA DE :

GESMUNPAL SA-k, A48913297, ORDIZIAKO UDALAN AURKEZTEN DUEN TXOSTENA: HUTS EGINDAKO ZORDUNTZAT JOTZEKO PROPOSAMENA AURKEZTU EZ IZANAREN ONDORIOZ ZERGA-ZORRA KOBRAZTEKO ESKUBIDEAREN PRESKRIPZIOA.

INFORME QUE GESMUNPAL SA PRESENTA EN EL AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA: PRESCRIPCIÓN DE DERECHO AL COBRO A CONSECUENCIA DE NO HABER PRESENTADO EN PLAZO LA PROPUESTA DE DEUDORES FALLIDOS.

Zerrendatuko diren premiamendu espedienteak izapidetzerakoan:

Habiendo comprobado, en la tramitación de los expedientes de apremio de la relación adjunta, que:

- Jakinarazpenak agirietan ageri diren helbideetan saiatu dira, Udal erroldan jasota dagoen helbidean eta baita ere hainbat ikerketa egin ondoren lortu diren helbideetan.
- Kontuetan gordailatutako dirua enbargatzea ezinezkoa gertatu da.
- Soldata enbargatzea ezinezkoa gertatu da (pertsona fisikoen kasuan).
- Azken lau urteetan ez da ordainketarik lortu.

- *Se ha intentado la notificación en los domicilios que figuran en los valores, en el domicilio que figura en el padrón de habitantes, así como en el que se haya podido averiguar, con resultado, en todo ellos, de desconocido.*
- *Se ha intentado el embargo de dinero depositado en cuentas con resultado negativo.*
- *El embargo de salario no ha resultado posible (en el caso de las personas físicas).*
- *En los últimos cuatro años no se ha obtenido ningún cobro.*

Azalduko diren **OINARRI JURIDIKOAK** diotena aplikagarria delarik:

*Siendo de aplicación los **FUNDAMENTOS DE DERECHO** que se detallan:*



1.- Martxoaren 8koa den Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2/2005 Zerga Foru Arau Orokorraren 74. artikulua dio zerga zorra ezin bada zergabilketa prozeduretan kobratu zergapekoen kaudimengabezia oso zein partzialagatik, eta kaudimengabezia hori frogatuta badago, zerga zorra kreditu kobraezin joko dela, erabat edo zati batean, preskripzio epearen barruan kobratzeko moduan jartzen ez den bitartean.

2.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzekoa den abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 61.1 artikulua dio ordaintzera behartutakoei ez bazaie ezagutzen zor osoa kobratzeko bahitu edo gauzatu daitekeen ondasun edo eskubide nahikorik, huts egindako zorduntzat hartuko direla; huts egintzat jotzean kaudimengabezia osoa edo partziala har daitekeela kontuan; kreditu kobraezintzat hartuko direla ordaintzera behartutakoak huts eginak izateagatik premiamenduzko prozeduran kobratu ezin izan diren kredituak; kobraezin kalifikatzailea kredituei jarriko zaiela eta huts egin kalifikatzailea, aldiz, ordaintzera behartutako pertsoneri.

3.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzekoa den abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 61.2. artikulua dio behin zordun nagusiak eta erantzukizun solidarioak huts egintzat hartuta, erantzule subsidiarioei kobratzeko ahalegina egingo dela; erantzule subsidiariorik ez badago edo horiek huts eginak badira, kreditua kobraezintzat hartuko dela.

4.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzekoa den abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 62.1. artikulua dio kreditua

1.- El artículo 74 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa dispone que las deudas tributarias que no hayan podido hacerse efectivas en los respectivos procedimientos de recaudación por insolvencia probada, total o parcial, de los obligados tributarios, se declararán crédito incobrable, total o parcial, en tanto no se rehabiliten en el plazo de prescripción.

2.- El artículo 61.1 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa dice que se consideran fallidos aquellos obligados al pago respecto de los cuales se ignore la existencia de bienes o derechos embargables o realizables en cuantía suficiente para el cobro total de la deuda; que la declaración de fallido podrá referirse a la insolvencia total o parcial del deudor; que son créditos incobrables aquellos que no han podido hacerse efectivos en el procedimiento de apremio por resultar fallidos los obligados al pago; dice que el calificativo de incobrable se aplicará a los créditos y el de fallido a los obligados al pago.

3.- El artículo 61.2 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa dice que una vez declarados fallidos los deudores principales y los responsables solidarios, la acción de cobro se dirigirá frente a los responsables subsidiarios; dice que, si no existen responsables subsidiarios, o si éstos resultan fallidos, el crédito será declarado incobrable.

4.- El artículo 62.1 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa dispone que la



Ordiziako Udala

2023IOSB0001

kobraezintzat hartzeak berarekin ekarriko duela kontuetan kredituari baja ematea adierazpen horrek aipatutako neurrian.

declaración de crédito incobrable motivará la baja en cuentas del crédito en la cuantía a que se refiere dicha declaración.

5.- Martxoaren 8koa den Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2/2005 Zerga Foru Arau Orokorraren 65.b) artikulua dio Administrazioak berak likidatutako eta autolikidatutako zerga zorren ordainketa exijitzeko duen eskubideak lau urteren buruan preskribituko du.

5.- El artículo 65 b) de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa dispone que prescribe a los cuatro años el derecho de la Administración para exigir el pago de las deudas tributarias liquidadas y autoliquidadas.

6.- Martxoaren 8koa den Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2/2005 Zerga Foru Arau Orokorraren 68. artikulua dio preskripzioa ofizioz aplikatuko dela.

6.- El artículo 68 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa dispone que la prescripción se aplicará de oficio

KONTUAN IZANIK DIRUBILKETAK AZALDUKO DEN ZORRA EXEKUZIO EDO BETEARAZPEN ALDIAN KOBRAZTEKO KUDEAKETA EGIN ETA KOBRAZTERIK IZAN EZ BADU ERE EZ ZUELA BERE MOMENTUAN ZORDUNAK HUTS EGINDAKO ZORDUNTZAT JOTZEKO PROPOSAMENA AURKEZTU

RESULTANDO QUE LA DEUDA DE LA RELACIÓN QUE SE DETALLA HA SIDO OBJETO DE GESTIÓN DE COBRO EN PERIODO EJECUTIVO CON RESULTADO NEGATIVO Y QUE NO SE PRESENTÓ UNA PROPUESTA DE INSOLVENCIA EN SU DEBIDO MOMENTO

2022/12/23 Diruzainak egindako txostena.

El informe del/de La tesorera de fecha 23/12/2022.

Arestian adierazitakoa kontuan izanik, idatziarekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta horrekin bat egonik, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuta, ondorengoa


A la vista de lo que antecede, examinada la documentación que la acompaña y de conformidad con la misma en uso de las atribuciones que me están legalmente conferidas en virtud del artículo 21.1 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, por medio de la presente

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

TENGO A BIEN :

GUZTIRA 28.107'76€ko ZORRARI BAJA EMATEA PROPOSATZEN DUT PRESKIPZIOA IZANIK BAJA ARRAZOA; PRESKIPZIOA HARTZEAK BERAREKIN EKARRIKO DUELARIK KREDITUARI KONTUETAN BAJA EMATEA ADIERAZPEN HORREK

QUE LA DEUDA PENDIENTE DE PAGO POR IMPORTE TOTAL DE 28.107'76 € SEA DADA DE BAJA POR PRESCRIPCIÓN, LO QUE MOTIVARÁ LA BAJA EN CUENTAS DEL CRÉDITO EN LA CUANTÍA A QUE SE REFIERE DICHA DECLARACIÓN.



AIPATUTAKO NEURRIAN.

Udalbatza plena jakinaren gainean geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Kontu-hartzailearen ingerak eta ordaintzeko dagozkien ebazpenak

5.-Reparos de la interventora y correspondientes decretos de abono.

KONTU-HARTZAILEAREN INGERA ORRIA (2022/033):

NOTA DE REPAROS DE LA INTERVENTORA (2022/033)


AURREKARIAK:

ANTECEDENTES:

Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritzasaitetik:

El Departamento de Secretaría da cuenta a la interventora de los siguientes contratos que están fuera de plazo:

Enpresaren izena / Nombre de la empresa	Kontratuaren xedea / Objeto del contrato	Kontratu / Contrato	Bukaera data / Fecha de finalización	Luzapenak / Prórrogas	2021ean gastua / Gasto en 2021
Gesmupal, S.A.	Dirubilketa exekutiboa / Recaudación ejecutiva	2003/11/03	2007/11/03	Urtero (kontraturik gabe) / Anual (sin contrato)	32.808,72 €
Juan M. Garmendia Amundarain	Kultur etxearen atezaina / Conserje de cultura	1986/04/15	Mugagabea / Indefinido	Urteko luzapena / Prórroga anual	45.422,32 €
Landarri S.L.U.	Hilerriaren zerbitzua / Servicio cementerio	2005/03/10	10 urte / 10 años 2015/03/01	Luzapen dekretua esleipen berri bat arte / Decreto de prórroga hasta nuevo contrato	24.111,65 €
Erro Koop. Elkartea	D'Elikatuz zentroaren kudeaketa / Gestión D'Elikatuz	2012/07/24	Gehienez 4 urte / max. 4 años 2016/07/24	Kontraturik gabe / Sin contrato	96.860,38 €
Iberdrola clientes, S.A.U.	Energia elektrikoa / Energía eléctrica		2020/04/30	Luzatua esleipena atera arte / Prorrogado hasta adjudicación	201.307,66 €
Euskaltel, S.A.	Zentralita eta mugikorrak / Centralita y móviles	2014/05/20	2018/05/20	Luzatua esleipena atera arte / Prorrogado hasta adjudicación	35.756,34 €



Ordiziako Udala

2023IOSB0001

Biok Zerbitzuak, S.L.	Personal laborala kontratatze laguntza teknikoa / Asesoría en contratación laboral	Kontraturik gabe / Sin contrato			15.002,79 €
2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L.	Inpresoraren mantenu kontratua / Mantenimiento de impresoras	Kontraturik gabe / Sin contrato			10.502,45 €
Ordiziako Musika Eskola S.L.	Musika eskola zerbitzua	Kontraturik gabe / Sin contrato		Urtero (kontraturik gabe) / Anual (sin contrato)	59.280,00 €
Jose Ramon Garmendia Garmendia	Zerbitzuetako lanak / Servicios	Kontraturik gabe / Sin contrato		Urtero (kontraturik gabe) / Anual (sin contrato)	43.087,83 €
Goxara S.L.	Eguneko zentroa eta etxez etxeko zerbitzua / Servicio de Centro de día y ayuda a domicilio			luzatua esleitu arte / Prorrogado hasta licitación	309.352,93 € 352.603,68 €
Repsol Butano, S.A.	Urdaneta eskolako propanoa				6.005,86 €
Alotza Haur Eskolako guraso batzordea	Alotza Haur Eskolako kudeaketa / Gestión de Alotza Haur Eskola		2022/06/08		363.450,00 €
Cuarhtoset Talent & Technology, S.L.	Nominen kalkulua / Cálculo de nóminas	Kontraturik gabe / Sin contrato			16.865,36 €
IZT KOOP. ELK.	Sistema informatikoaren mantenu lanak / Mantenimiento del sistema informático	Kontraturik gabe / Sin contrato			17.598,24 €
AEG Sistemas	Eraikinen instalazio eta mantenu kontratua	Kontraturik gabe / Sin contrato			4.509,07 €
Serkoten	Mantenu kontratua	Kontraturik gabe / Sin contrato			197,62 €
EDP Clientes, S.A.U,		Kontraturik gabe / Sin contrato			9.623,78 €
Izan intervención familiar comunitaria, S.L.	Esku hartze soziohezitzaile eta psikosoziala ematea / Intervención socioeducativa y psicossocial	Kontraturik gabe / Sin contrato	2022/10/21		250.996,27 €

A) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea, azaroaren 8koa.

A) Normas aplicables:

a.1) Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público



Ordiziako Udala

2023IOSB0001

“29. artikulua. Kontratuen iraupen-epaia eta kontratuen exekuzioa.”

Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldean prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Toki erakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

“35. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia”:

1. Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuak aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:

“Artículo 29. Plazo de duración de los contratos y ejecución de los contratos.”

Sin perjuicio de las normas especiales aplicables a determinados contratos, la duración de los contratos del sector público deberá establecerse teniendo en cuenta la naturaleza de las prestaciones, las características de su financiación y la necesidad de someter periódicamente a concurrencia la realización de las mismas.

Disposición adicional segunda. Normas específicas de contratación en las Entidades Locales.

Corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, de gestión de servicios públicos, los contratos administrativos especiales, y los contratos privados cuando su importe no supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.

“Artículo 35. Contenido mínimo del contrato”:

1. *Salvo que ya se encuentren recogidas en los pliegos, los contratos que celebren los entes, organismos y entidades del sector público deben incluir, necesariamente, las siguientes menciones:*

Hala egokituz gero, prezioa zein

El crédito presupuestario o el programa o



Ordiziako Udala

2023IOSB0001

aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo errubrikaren kontura ordainduko den.

rúbrica contable con cargo al que se abonará el precio, en su caso.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

a.2) Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

“67. artikulua. Legezkotasunaren kontrola.”

“Artículo 67. Control de legalidad”.

1. Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezkotasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

1. *La función interventora en su aspecto de control de legalidad tendrá por objeto fiscalizar todos los actos de las Entidades locales y sus Organismos Autónomos que den lugar al reconocimiento y liquidación de derechos y obligaciones o gastos de contenido económico, los ingresos y pagos que de aquéllos se deriven, y la recaudación, inversión y aplicación, en general, de los caudales públicos administrados, con el fin de que la gestión se ajuste a las disposiciones aplicables en cada caso.*

2. Eginkizun horren erabilerak honako haiek eskuhartuko ditu:

2. *El ejercicio de la expresada función comprenderá:*

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

a) *La intervención crítica o previa de todo acto, documento o expediente susceptible de producir derechos u obligaciones de contenido económico o movimiento de fondos de valores.*

b) Ordainketa-aginduaren erazio kontu-hartzea.

b) *La intervención formal de la ordenación del pago.*

c) Ordainketaren kontu-hartze materiala. Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57.artikulan

c) *La intervención material del pago. Salvo que por acuerdo del Pleno sea autorizada la realización de este control por muestreo, la firma del Interventor se añadirá a las mancomunadas de disposición de fondos previstas en el artículo 57 de esta Norma Foral.*



Ordiziako Udala

2023IOSB0001

aurreikusitako fondoerako erabilpenerako amankomunatuerei erantsiko zaie.

“70. artikulua. Ingerak.”

1. Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.
2. Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:
 - Espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean.
3. Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina:

Artículo “70. Reparos”.

1. *Establece la obligación del Interventor, en caso de mostrarse en desacuerdo con el fondo o con la forma de los actos, documentos o expedientes examinados, de formular sus reparos por escrito antes de la adopción del acuerdo o resolución.*
2. *Si el reparo afecta a la disposición de gastos, reconocimiento de obligaciones u ordenación de pagos, se suspenderá la tramitación del expediente hasta que aquél sea solventado en los siguientes casos:*
 - *En los casos de omisión en el expediente de requisitos o trámites esenciales.*
3. *Cuando el órgano a que afecte el reparo no esté de acuerdo con el mismo, corresponderá al Presidente de la Corporación resolver la discrepancia, siendo su resolución ejecutiva. Esta facultad no será delegable en ningún caso.*

a.3) Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local.

En el segundo artículo se modifica el Texto Refundido de la Ley reguladora de Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo, quedando del siguiente modo el Texto Refundido de la Ley reguladora de Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo:



“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenariburuzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoko eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko

Artículo “213. Control interno.”

Los órganos interventores de las Entidades Locales remitirán con carácter anual a la Intervención General de la Administración del Estado un informe resumen de los resultados de los citados controles desarrollados en cada ejercicio, en el plazo y con el contenido que se regulen en las normas indicadas en el párrafo anterior.»

Artículo “218. Informes sobre resolución de discrepancias”.

1. *El órgano interventor elevará informe al Pleno de todas las resoluciones adoptadas por el Presidente de la Entidad Local contrarias a los reparos efectuados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. Dicho informe atenderá únicamente a aspectos y cometidos propios del ejercicio de la función fiscalizadora, sin incluir cuestiones de oportunidad o conveniencia de las actuaciones que fiscalice.*

Lo contenido en este apartado constituirá un punto independiente en el orden del día de la correspondiente sesión plenaria.

El Presidente de la Corporación podrá presentar en el Pleno informe justificativo de su actuación.

2. *Sin perjuicio de lo anterior, cuando existan discrepancias, el Presidente de la Entidad Local podrá elevar su resolución al órgano de control competente por razón de la materia de la Administración que tenga atribuida la tutela financiera.*

3. *El órgano interventor remitirá anualmente al Tribunal de Cuentas todas las resoluciones y acuerdos adoptados por el*



Ordiziako Udala

2023IOSB0001

lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.».

Presidente de la Entidad Local y por el Pleno de la Corporación contrarios a los reparos formulados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. A la citada documentación deberá acompañar, en su caso, los informes justificativos presentados por la Corporación local.»

Irregularitasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira azaroa eta abenduan zehar:

En los meses de noviembre y diciembre han llegado las siguientes facturas que corresponden a contratos que están en situación irregular:

<u>ERREPARO FAKTURAK</u> <u>FACTURAS REPARO</u>		<u>Azaroa eta abenduan zehar jasotako fakturak</u> <u>Facturas recibidas en noviembre y diciembre</u>		
HORNITZAILEA PROVEEDOR		FAKTURA ZENBAK. Nº FACTURA	FAKTURA DATA FECHA FACTURA	ZENBATEKOA IMPORTE
F20970018	ERRO KOOP. ELKARTEA (016UTB.22	2022/12/01	8.476,55
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210104	2022/11/23	12,29
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210105	2022/11/23	22,47
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210103	2022/11/23	12,98
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210102	2022/11/23	103,93
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210101	2022/11/23	31,59
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210100	2022/11/23	16,6
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210099	2022/11/23	25,8
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210098	2022/11/23	13,03
B20737300	GOXARA, S.L. (4425)	E.Z.O.	2022/11/30	30.621,09
B20737300	GOXARA, S.L. (4425)	EELO 11/22	2022/12/07	26.505,49
G20202743	ALOTZA HAUR ESKOLA (170	87	2022/12/02	30.287,5
B95672630	CUARHTOSET TALENT &	286	2022/11/30	1.090,42
B20943213	IZAN INTERVENCION	159	2022/11/29	18.671,24
B20943213	IZAN INTERVENCION	160	2022/11/29	4.746,58
B20531448	LANDARRI, S.L.U. (3313)	2211988003	2022/11/13	421,91
B20531448	LANDARRI, S.L.U. (3313)	2211988012	2022/11/21	337,55
B20531448	LANDARRI, S.L.U. (3313)	2211988016	2022/11/24	337,55



B20531448	LANDARRI, S.L.U. (3313)	2211988027	2022/11/30	4.894,23
B20531448	LANDARRI, S.L.U. (3313)	2211988029	2022/11/30	337,55
B20531448	LANDARRI, S.L.U. (3313)	2211988030	2022/11/30	337,55
B20531448	LANDARRI, S.L.U. (3313)	2211988000	2022/11/10	337,55
F20869053	IZT KOOP.E. (6278)	2022//20221738	2022/11/25	1.539,85
A48913297	GESMUNPAL, S.A. (2676)	0267	2022/12/14	2.382,87
GUZTIRA				131.564,17 €

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Aipatu behar da, gainera, Iberdrolarekin eta Euskaltelekin ordainketak helbideratuak dituela Ordiziako Udalak.

b) Idazkaritzatik eta kontu-hartzaitzatik irregulartasun egoeran dauden kontratuak zuzentzeko plangitza egin da. Modu honetan, honako hauek dira momentuz emandako aurrera pausoak:

Zuzentze bidean daudenak:

- **Ingurugiro zerbitzuak**, (orain arte Laia S. Coop. Txikia): 2022 urtean kontratu txikia izapidetu da eta kontratu irregularren zerrendatik kendu da. Helburua da udal barruan ingurugiro teknikari postua sortzea , eta bitartean Laiak eskainitako zerbitzuekin jarraituko da, kontratu txikia erregularizatu.
- **Hilerriko zerbitzua**, (orain arte Landarri S.L.U.): Lizitazio berrira ateratzeko prozesua abian jarri da.

CONCLUSIONES:

a) *Teniendo en cuenta que todos los contratos detallados en la lista están en situación irregular, deben actualizarse cuanto antes. Hay que señalar, además, que el Ayuntamiento de Ordizia tiene domiciliados pagos con Iberdrola y Euskaltel.*

b) *Desde secretaría e Intervención se ha planificado la corrección de contratos en situación de irregularidad. De esta manera, los avances que se han dado de momento han sido los siguientes:*

En subsanación:

- **Servicios Medioambientales**, (hasta ahora Laia S. Coop. Menor): *en el año 2022 se ha tramitado el contrato menor y se ha eliminado del listado de contratos irregulares. El objetivo es crear una plaza de Técnico de Medio Ambiente en el Ayuntamiento. De momento, se continuará con los servicios ofrecidos por Laia, regularizando el contrato menor.*
- **Servicio del cementerio** (hasta ahora Landarri S.L.U.): *se ha puesto en marcha el proceso para la nueva licitación.*



- **D'Elikatuz zentroaren kudeaketa** (orain arte Erro Koop. Elkartea): Lizitazio berria ateratzeko prozesua abian jarri da.
- **Energia elektrikoa** (orain arte IBERDROLA CLIENTES, S.A.U): Lizitazio berrira abian jartzeko hainbat aukera aztertzen ari dira.
- **Telefonia zerbitzua**, (orain arte Euskaltel, S.A): lizitazio berria abian jartzeko aukera ezberdinak aztertzen ari dira.
- **Inpresoren mantenimendu kontratua**, (orain arte 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L): lizitazio berria abian jartzeko hainbat aukera aztertzen ari dira.
- **Eguneko Zentroaren eta etxez etxeko zerbitzuen kontratua**, (orain arte Goxara S.L): lizitazio berria ateratzeko prozesua abian jarri da.
- **Musika eskola zerbitzua**, (orain arte Ordiziako Musika Eskola S.L): zerbitzuaren lizitazioa ateratzeko prozesua abian jarri da.
- **Gestión del centro D 'Elikatuz** (hasta ahora Erro Koop. Asociación): se ha puesto en marcha el proceso para la nueva licitación..
- **Energía eléctrica** (hasta ahora IBERDROLA CLIENTES, S.A.U): se están estudiando diferentes alternativas para la puesta en marcha de la nueva licitación.
- **Servicio de telefonía** (hasta ahora Euskaltel, S.A.): se están estudiando diferentes alternativas para la puesta en marcha de la nueva licitación.
- **Contrato de mantenimiento de Impresoras** (hasta ahora 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L): se están estudiando diferentes alternativas para la puesta en marcha de la nueva licitación.
- **Contrato de Centro de Día y ayuda a domicilio** (hasta ahora Goxara S.L): se ha puesto en marcha el proceso para sacar la nueva licitación.
- **Servicio de Escuela de Música**, (hasta ahora Escuela de Música de Ordizia S.L): se ha puesto en marcha el proceso de licitación del servicio.

Zuzentzeke daudenak:

- **Kultur etxearen atezaina** , (orain arte Juan M. Garmendia Amundarain): 2022an hartuko du erretiroa, eta kultur etxearen atezain postua modu honetan betetzeari utziko zaio orduan.

Pendientes de subsanar:

- **Conserje cultura** (hasta ahora Juan M. Garmendia Amundarain), Se jubilará en 2022. A partir de ese momento se dejará de ocupar el puesto de conserje de la Casa de Cultura de este modo.



- **Zerbitzuetako lanak** (orain arte Jose Ramon Garmendia Garmendia): 2022an zehar erregularizatuko da, zerbitzuetako egoera zein den aztertuko da, zerbitzu honen beharra aztertuz.
- **Pertsonal laborala kontratatzeko laguntza teknikoa**, (orain arte Biok Zerbitzuak, S.L.): Zerbitzu honen beharra aztertuko da. Pertsonal saileko teknikari postua sortu zen 2021an baina momentuz hutsik dago, bitartean aholkularitza zerbitzu honekin jarraitzeko beharra ikusten da, baina eskaintzen dizkiguten zerbitzuak berraztertuz. 2022an kontratu txiki bat egingo da zerbitzu hau kontratatzeko eta egoera erregularizatuz; betiere pertsonaleko teknikari postua hornitu bitartean.
- **Dirubilketa exekutiboaren zerbitzua**, (orain arte Gesmupal, S.A.): Udalean Gaikuntza Nazionala duten langileentzat gordetako Diruzain lanpostua sortu eta hornitu da. Dirubilketa exekutiboa Diruzaintza sailak hartuko du eta sailaren berrantolaketa egingo da, dirubilketa exekutiboaren kanpo zerbitzuarekin amaituz .
- **Taulan agertutako gainerako kontratuak**: lizitazioan atera beharko da zerbitzua.
- **Trabajos en servicios** (hasta ahora Jose Ramon Garmendia Garmendia): se regularizará a lo largo de 2022, se analizará la situación de los servicios, analizando la necesidad de este servicio.
- **Asistencia técnica para la contratación de personal laboral** (hasta ahora Biok Zerbitzuak, S.L.): se analizará la necesidad de este servicio. En el año 2021 se creó la plaza de técnico de personal, pero por el momento está vacante, mientras tanto se ve la necesidad de continuar con este servicio de asesoramiento, pero revisando los servicios que nos ofrecen. Durante el año 2022 se realizará un contrato menor para la contratación de este servicio, regularizando la situación, hasta la provisión del puesto de técnico de personal.
- **Servicio de Recaudación Ejecutiva** (hasta ahora Gesmupal, S.A.): se ha creado y dotado el puesto de Tesorera del Ayuntamiento reservado a personal con Habilitación Nacional. La gestión de recaudación ejecutiva recaerá en el departamento de Tesorería, se realizará una reordenación del Departamento poniendo así fin a la externalización del servicio de recaudación ejecutiva.
- **Resto de los contratos mencionados en el cuadro**: tendrá que licitarse el servicio.



Ordiziako Udala

2023IOSB0001

kontratu irregularren fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez Alkateak hartutako ebazpen guztiekin batera eta puntu bereizi bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

trámite de pago de las facturas de los contratos irregulares detallados hasta que lo resuelva el Alcalde. La interventora enviará este informe al Pleno, con las resoluciones adoptadas por el alcalde en relación a los reparos señalados e incluirá un punto independiente en el orden del día del correspondiente Pleno.

2022/1536. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-hartzaileak abenduaren 19an egindako 2022/33 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.
